


LANBIDE HEZIKETAN EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA GARATZEKO GIDA



BETERRI
SARETUZ

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Promoción
Económica, Turismo y
Medio Rural



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

KOKAPENA

Beterri Saretuz Proiektua orain dela hiru urte hasi zen, Beterri Buruntzan Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritutako hainbat enpresa, hezkuntza zentro eta eragile publikoen bitartez.

Eskualdeko eredu ekonomikoaren oinarriak eraldatzea du helburu: eredu jasangarriak, parte hartzaileak eta pertsonak erdigunean edukiz. Interkooperazioa, formazioa, komunikazioa, hedapena, artikulazioa, behaketa eta ikerketa lan lerro bezala edukiz.

Gure oinarrietan dauzkagun beharrak denon artea asetzen ahalegintzen gara:

- Elkarri entzunez eta batera planifikatuz.
- Elkarrengandik ikasiz eta esperientzia eredugarriak partekatuz.
- Eskualdeko garapena bultzatzeko moduetan sakonduz.
- ESE balioak praktikak jarritz.
- Eskualdean eraginez, esperientzia berriak sortuz eta ikusaraziz.
- Harreman ereduak gure oinarrien arabera eraldatuz.

Ekosistema osatzen dugunok, Ekonomia Sozial Eraldatzailearen balioak partekatekatzen ditugu:

- Interkooperazioa
- Erantzukidetasun soziala
- Lurralde garapena
- Parekidetasuna
- Parte hartzea
- Euskara
- Inklusioa
- Taldearen zaintza

Aurreko urtean, Hezkuntza eragileekin lanketa berezia egitea erabaki zen, egoeraren diagnostikoa eginez. Horretarako Lanbide hezkitaiko ikastetxe ezberdinekin eta hezkuntza ez formaleko entitate batekin, elkarrizketak egin ziren, dokumentu bat sortuz eta hurrengo urtera begira helburuak jarritz.

HELBURUA

Baliabide eta tresnen gida aurkeztu Ekonomia Sozial eraldatzailea Lanbide Heziketan lantzeko.

- Ekonomia sozial eraldatzailearean balioei eta praktikei buruzko ezagutza sortzen laguntzea.
- ESE baitan, Beterri Buruntza sarean eta gertu dauden ereduak ezagutu.

METODOLOGIA

Erabili dugun metodologiaren barruan pratika nagusitu da, teoriaren ginetik. Beterri Saretuzen barnean eta ESE sustatzen duten praktikak ezagutu eta lan-tresna bat sortzen saiatu gara.

Aurten, Beterri Saretuzeko Lehen Hezkuntza topaketa egin da, bertan Lanbide Heziketako irakasleak topatzeko aukera izan dute eta ikastetxe bakoitzan ekonomía sozial eraldatzailea nola lantzen den partekatzeko aukera ere.

Aurtengo helburuak, ESE unitate didaktiko baten sorrera, ESE inguruan azokaren diseinua egitea eta ESE buruz informazioa izatea. Horretarako fase eta dinamika ezberdinak erabili ditugu:

1. FASEA: Aurtengo partehartzailekin (Beterri Buruntzako, lanbide heziketa) harremanetan jarri eta lehengo urtean ondorioztatutako helburuak gogorarazi.

2. FASEA: Topaketak. Hainbat topaketa egin dira. Helburua praktikatik teoria eta hausnarketara pasatzea eta baliabideak sortzea izan da.

- **Lehen hezkuntza topaketa:**

Lanbide heziketako irakasleekin egin da. ESE inguruan jakintza izateko Leire Udabe gonbidatu da..

Leire Udaberen aurkezpenaren ondoren, Beterri Saretuzen zer den azaldu eta lehen urtean jarritako helburuen inguruan hausnartu dugu. Hezkuntza eragileek adierazi dute, gaur egun erronken bitartez lan egiten dutela, beraz bide horretatik, unitate didaktikoaren ordez, ESE garatzeko gida egitea erabaki da, non baliabide ezberdinak eskeiniko zaizkien Lanbide Heziketako irakasleei.

Horretarako, informazioa online partekatu dugu, erronkei buruz informazioa eta ekonomia sozial eraldatzailearen inguruan duten dokumentazioa bilduz.

- **Ikasleek ESE eredu praktikoak ezagutzeko topaketa:**

Bestetik, ikastetxe batekin Iturola Hernaniko Elkarlan Sorguneari buruzko esperientzien jardunaldia egin da, Tapuntu eta Bira produkzioa enpresen esperientziaren bitartez. Honek, ikasleek ESE lan egiten duten enpresak ezagutu, aurrera egiteko baliabidei buruz galdetu eta zubiak sortzeko baliabide eraginkorra izan da.

- **Azken hezkuntza topaketa:**

Hezkuntza eragileekin azken topaketa bat egin da, non lehen topaketaren dinamika jarraituz, Farapitik aditu batek Erantzukidetasun Sozialen berri eman digu. Datorren urtera begira, azokaren lanketa egin da eta ESE garatzeko gidaren barruan, azken informazioak jaso dira.

Beste ekonomia mota behar dela argi badugu, ESE lanean dauden enpresen errealitateak ezagutu eta hezkuntza eragileekin elkar lanean egotea ezin bestekoa da, batik bat, enpresa hauetan suertatzen diren erronkak, formazioetan txertatu eta eguneratzeko.

3. FASEA: ESE GARATZEKO GIDA

ESE inguruan aurten landutako esperientziak, informazioak eta lanketa biltzen duen gida, bidaliko zaie prozesuan parte izan diren eragile guztiei.

BALIABIDEAK

Ekonomia Sozial Eraldatzailea beharrak asetzeko inizatiba jasagarri eta alternatiboen sorkuntzan oinarritzen da. Erantzukidetasuna, inklusioa, zaintza, lurralde garapena eta bestelako printzipioak jarraitzen ditu. Dokumentuaren atal honetan, ESEa garatzeko baliabide batzuk definitu dira, ideazioan eta inguruko baliabideetan oinarritzen direnak.

1. Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarri duten inguruko inspirazio kasuen bilduma

Txosten honen helburua inspirazio kasuak zabaltzea eta komunitatearen jakintza, elkar ezagutza eta partaidetza sustatzea da. Bertan Ekonomia Sozial Eraldatzailea bultzatzen duten eskualdeko entitateei buruzko informazioa bildu da. Garapena elkarlanean eta bidelagun izaten gauzatu behar den prozesua da.

» IKUS 1. ERANSKINA.

2. Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritutako ekimenak diseinatzeko dinamikak

Behin eskualdeko testuinguruan kokatuta, ekimen berriak sortzeko dinamikak prestatu ditugu. Hauek eraikitzaren prozesu desberdinak barneratzen dituzte, baliagarriak izan daitezkeenak Ekonomia Sozial Eraldatzailea lantzeko.

a. Talde-dinamika: brainstorming

Lehenengo dinamika honetan helburu nagusia Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzeko formulak pentsatzea da. Jarduera 5 minutukoa da eta gomendagarria da taldeetan egitea. Asmoa beste pertsona edo entitate baten lekuan jartzea da, ideia desberdinak jasotzea eta gero elkarbanatzea. Aurkezten diren taldeak hurrengoak dira:

1. NATURKLIMA (jasangarritasunaren ikuspegitik)
2. OLATUKOOP (ESE-a sustatzen duten kooperazioen ikuspegitik)
3. GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIA (administrazioaren ikuspegitik)
4. ARGIA (komunikabideen ikuspegitik)
5. DEKOSOCIAL - SUTARGI (inklusio sozialaren ikuspegitik)
6. HERRITARRAK (onuradunen ikuspegitik)

» IKUS 2A. ERANSKINA.

b. Ideien bideragarritasuna

Hurrengo pausua ideia horien bideragarritasun-maila identifikatzea da. Horretarako, ideia bakoitza erraza edo zaila den eta normala edo originala den identifikatu behar da. Ariketaosatzean, ideia horiek hiru taldeetan sailkatuko dira:

1. NOLA?
 - Etorkizuneko ideiak
 - Erronka: inplementazioa
 - Ezin da egin orain
2. ORAIN!
 - Inplementazioa erraza
 - Arrisku txikia
 - Berrikuntza gutxi
3. WOW!
 - Ideia berritzaileak
 - Inplementazioa egingarria da
 - Eragina eta harrigarria
 -

» IKUS 2B. ERANSKINA.

c. Ideiaren zehaztapena

Jarduera honen helburua ESEn oinarritutako proiektua definitzea da. Orain arte, ideia desberdinak jaso dira eta horien bideragarritasuna neurtu da, beraz, ideia nagusia osatuko da.

Hasteko, proiektua irudikatzeko marrazki edo eskema bat egitea gomendagarria da. Orduan, Stakeholderrak identifikatuko dira eta bakoitzak dituen irabaziak adieraziko dira. Hauek ESEn parte izan behar dira.

Balio proposamena definitzeko hartzaileari gehituko zaion balio gehigarria adieraziko da eta, era berean, proiektuaren faktore-bereizgarriak. ESEa oinarri ez duten beste proiektuetatik zer desberdintasun ditugun adierazi beharko da.

Azkenik, gure proposamenaren jasangarritasuna aztertuko da triple balantzea erabiliz: gizarte, ekonomia eta ingurugiroa kontutan hartuta.

» IKUS 2C. ERANSKINA.

d. ECO-CANVA

Azkeneko ariketa hau negozio-diseinua egitea du helburu. Horretarako, alderdi asko landu behar dira proiektuaren ezaugarri nagusiak argi izateko. Batetik, arazoa eta beharren bloketik hasi behar da, ostean bezero edo segmentuen atala definitzeko eta balioaren proposamena txertatzeko. Ondoren, falta diren atalak osatu behar dira.

» IKUS 2D. ERANSKINA.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA.

Ekonomia sozial eraldatzailea oinarri duten inguruko kasuen bilduma

Izena	Zer	Non	Kontaktua
Argia	Euskarazko komunikazio proiektu independentea da eta kazetaritza eraldatzailea egiten dute Euskal Herri osorako.	Lasarte	www.argia.eus komunitatea@argia.eus
Arremanitz	Hezkuntzan eraginez, jendartearen eraldaketa bliatzen duen lan taldea da.	Hernani	www.arremanitz.eus info@arremanitz.eus
Aztiker	Aztiker, soziologia ikergunea eta aholkularitza da.	Andoain	www.aztiker.eus idezkaritza@aztiker.eus
Bai Euskarari	Arlor sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetzeko eragitea, komunitatea sustatuz eta tresna, baliabide zein proiektu berritzaileak eraikiz eta partekatuz.	Andoain	info@baieuskarari.eus www.baieuskarari.eus
Batura	Euskal Herriko Enomia Sozial Eraldatzailearen mapa		baturamapa@batura.eus
Beterri Errotuz SI	Landagune eta herri guneen mantenu eta garbiketara bideratutako zerbitzuak, ekonomia zirkularra sustatzen duten proiektuak eta komunikazio zerbitzuak eskaintzen dituen laneratze-enpresa	Hernani	beterrierrotuz@beterrierrotuz.eus 688 863 403
Beterri Saretuz	Beterri Buruntza eskualdeko ESEaren eragileen elkarlaneko sarea	Beterri Buruntza	info@beterrisaretuz.eus https://beterrisaretuz.eus/
Bira produkzioak	Proiektu propioak sortzeaz gain, bidegintza, gidoigintza eta ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak eskaintzen dituen kooperatiba-ekoiztetxea da.	Andoain	www.biraprodukzioa.eus info@biraprodukzioa.eus

Daitke gizarte aholkularitza	Epleguan, berdintasunean, adinaren kudeaketan eta prestakuntzan espezializatutako aholkularitza gara	Donosti	www.daitke.eus daitke@daitke.eus
DEKOsozial Sutargi	Inklusio soziolaborala eta ingurumena bateratzeko erronkari erantzuna ematen dion proiektua.	Lasarte	www.sutargi.org jalonso@sutargi.org
Ekomodo	Bizikiatzean eta ekonomia zirkularrean nazioarteko erreferentea den industria-konpainia	Donostia	www.ekomodo.eus
Elhuyar	Euskararen eta euskal gizartearen garapenean erreferente izateko, lankidetzan dihardugu zientziaren, adimen artifizialaren, hiztegitzaren, itzulpenitzaren hizkuntza-kudeaketaren eta hobekuntza sozialaren eremuko profesionalekin.	Usurbil	www.elhuyar.eus elhuyar@elhuyar.eus
Emun	Gai sozialak kudeatzen laguntzen duen aholkularitza da. Bidegurutzeetan lan egiten duen kooperatiba, euskarak eta berrikuntza sozialak bat egiten duten tokietan.	Arrasate	www.emun.eus emun@emun.eus
Gezki	Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua, diziplina ezberdinetatik gatozen ikerkieriez osatutako UPV/EHUko Unibertsitate Institutua da. Gure helburu nagusia Euskal Herrian nabarmentzekoa den Gizarte Ekonomia eta mugimendu kooperatiboko erakundeen gaineko ezagutza eta hedapenean sakontzea da.	Donostia	www.gezki.eus gezki@ehu.eus
Hiruki Larroxa	Parekidetasun eta LGBT+ gaietan formazioa, aholkularitza, ikerketa, bide-laguntza eta herri proiektu integralak garatzen dituen kooperatiba da.	Hernani	www.hirukilarroxa.eus hirukilarroxa.eusinfo@hirukilarroxa.eus
IDO	Argazkilaria. Inrdiaren pedagogia bisual eta terapeutikoan espezializatua	Hernani	info@idophotography.eus www.idophotography.eus

Ingutek	Energiaren eraginkortasunean aholkularitza eta ikuskaritzak eskaintzen dituen kooperatiba gara.	Hernani	www.ingutek.eus info@ingutek.eus
Ituroa Elkar Sorgunea	ITUROLA, berrikuntza eta eraldaketa sozialean oinarritzen diren esperientzia ekonomikoaren bilgunea da, inteligentzia kolektiborako laborategia	Hernani	hhz@hernani.eus 943 33 70 00
IZT	Informatikako zerbitzu teknikoak	Andoain	www.izt.eus info@izt.eus
Karabeleko	Helburu nagusiak nekazaritza ekologikoa sustatzea eta buru osasuneko arazoa duten pertsonen gizarteratze eta laneratzea bultzatzea.	Hernani	info@karabeleko.org 943 557 524
Katea Legaia	KL katealegia irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta Gipuzkoan gizartearen eta lan-munduan baztertzeko arriskuan dauden pertsona ezgaituentzako lanpostuak sortu eta mantentzea du helburu.	Hernani	www.grupoki.com info@grupoki.com
Koopfabrika	Ekintzailatza kooperatiboko eskola	Hernani	info@koopfabrika.eus
Maitelan koop	Zaintza lanei kolektiboki erantzuteko tresna	Hernani	info@maitelan.eus 633 440 189
Martin Ugalde parkea	Martin Ugalde Kultur Parkea euskal kultura sustatzeko bigune izateko sortu zen. Euskara eta euskal kulturaren eremuko enpresa, erakunde eta elkarrekin inguru berean biduz, euskaingintza eta euskal kultura indartzen lagundu nahi du parkeak.	Andoain	martinugalde@kulturparkea.eus 943 30 40 49
Mixelena mekanizatuak	Mixelenak neurri handiko pieza bereziak mekanizatzen ditu	Hernani	www.taleresmitxelena.eus info@taleresmitxelena.eus
Naturklima	Gipuzkoako Klima Aldaketaren Foru Aldundia	Donostia	info@naturklima.eus
Olatukoop	Ekonomian eta ekintzaile ekonomikoan modu	Donostia	info@olatukoop.eus

	eraldatzailean jarduten duten enpresa, elkarte, erakunde eta kooperatibek osatzen dute OlatuKoop sarea		
Recreatekult	Kulturaren sektorean ekonomia zirkularra bultzatzen duen proiektu bat da, hondakinen sorrera murriztuz, ballabideak optimizatu, berrerabili eta balorizatu, eta kultura-sektorean bertan eta haren jarduera artistiko-kultural osoan sortzen diren ingurumen-inkapto negatibo guztiak minimizatuz.	Donostia	info@recreatekult.com 699 044 605
Totem MT	Eskalataile komunitateari eskalada garbirako kalitatezko produktuak eskuragarri jartzen dituen Euskal Herriko kooperatiba elkarteak.	Hernani	info@totemcams.com
Txakur Gorriak	Autoedizioa lantzen duen sormen taldea	Andoain	www.txakurgorria.eus txakurgorria@txakurgorria.eus
Txukuntzen	Antolatzaile profesionala	Hernani	info@txukuntzen.eus www.txukuntzen.eus
Zabalduz	Esku hartze sozialaren esparruan, gizarte zerbitzuen sistemarekin lan egiten dute	Hernani	zabalduz@zabalduz.eus 943 084 646

2A. ERANSKINA.

Talde-dinamika: brainstormin

Zer egingo zenukete beste pertsona edo entitate bat bazinete Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzeko?


Dinamika honen helburua ESEa sustatzeko formulak pentsatzea da.

Horretarako, hurrengo sei pertsonaien paperean jarriko zarete. Zer egingo zenukete haien kasuan?:

- A. NATURKLIMA (jasangarritasunaren ikuspegitik)
- B. OLATUKOOP (ESE-a sustatzen duten kooperazioen ikuspegitik)
- C. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (administrazioaren ikuspegitik)
- D. ARGIA (komunikabideen ikuspegitik)
- E. DEKOSOCIAL - SUTARGI (inklusio sozialaren ikuspegitik)
- F. HERRITARRAK (onuradunen ikuspegitik)

5 minutu dituzue pertsonai horietan bihurtzeko eta bururatutako ideia guztiak islatzeko.

Gero, ideia horiek elkarbanatuko ditugu.



2B. ERANSKINA.

Ideien bideragarritasuna

Jasotako ideietatik, zeintzuk uste duzue direla bideragarrienak?

Dinamika honen helburua ESEa sustatzeko formula bideragarriak identifikatzea da.

Horretarako, ideia bakoitza erraza edo zaila den eta normala edo originala den identifikatu beharko duzue.

Identifikatzean ondorengo karratuak bete eta hiruko sailkapena ikusiko duzue:

A. NOLA?


- Etorbizuneko ideiak
- Erronka: implementazioa
- Ezin da egin orain

B. ORAIN!

- Implementazioa erraza
- Arrisku txikia
- Berrikuntza gutxi

C. WOW!

- Ideia berritzaileak
- Implementazioa egingarria da
- Eragina eta harrigarria



2C. ERANSKINA.

Ideiaaren zehaztapena

Jarduera honen helburua Ekonomia Sozial Eraldatzaileen oinarritutako proiektua definitzea da.

Hasteko, proiektua irudikatzeke marrazki edo eskema bat egitea gomendagarria da. Zein da funtzionamendua?

Stakeholderrak identifikatuko dira eta bakoitzak daukan irabazia adieraziko da. ESEn oinarritzen dira? Zer irabazten dute? No la izan daitezke lagungarri?

Balio proposamena definitzeko hartzaileari gehituko diogun balio gehigarria adieraziko da eta, era berean, proiektuaren faktore-bereizgarriak. ESEa oinarri ez duten beste proiektuetatik zer desberdintasun ditugun adierazi beharko da.

Azkenik, gure proposamenaren jasangarritasuna aztertuko dugu triple balantzea erabiliz: gizarte, ekonomia eta ingurugiroa kontutan hartuta.

PROIEKTUAREN IZENA:

Proiektuaren irudikapena

Zeintzuk dira eragile garrantzitsuenak? ESEn oinarritzen dira? Zer irabazten dute? Nola izan daitezke lagungarri?

Nola egingo duzu jasangarri zure proiektua?

Ekonomikoki:

Sozialki:

Ingurumenarekiko:

Balio proposamena

Zein balio gehitzen diozu hartzaileari? Zerk bereizten zaitu)

beterrisaretuz.eus



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Departamento de Promoción
Económica, Turismo y
Medio Rural



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro